



Gabriel Inclan Osasun sailburua, txartela aurkeztu zutenean. JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

Osasun txartel elektronikoa Gipuzkoan ere jarri dute

ERREDAKZIOA

Donostia

Bizkaiko Basauri herrian froga gisara erabiltzen hasi ziren orain aste batzuk Osakidetzako osasun txartel elektronikoa. Ekimenak izandako emaitza «ona» ikusita, Gipuzkoako bost herritara zabaltzea erabaki du Eusko jaurlaritzako Osasun sailak. Azpeitia, Azkoitia, Beasain, Getaria eta Legazpia izango dira osasun txartel elektronikoen abantailez baliatzeko aukera izango duten Gipuzkoako bost herriak.

Osakidetzako ohiko txartelaren bitartez egin daitezkeen gauza berak egin daitezke osasun txartel elektronikoarekin, baina bestelako zereginetarako ere balio du: liburutegiko edo kiroldegiko txartel bezala ere erabili daiteke. Errenta aitortpena egiteko ere balio duela azaldu zuen Osakidetzako berrikuntza teknologikorako ardura-dun Josu Garaik.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren asmoa da 2008. urterako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako milioi bat inguru biztanlek osasun txartel elektronikoa erabiltzea. Hedapenak jarraitu ahala, herritarrei etxera informazioa helaraziko zaiela azaldu zuten Osakidetzako arduradunek.

Basaurin joan den otsailaren 21ean ezarri zuten osasun txartel elektronikoa, eta Osakidetzako arduradunen esanetan, «arrakasta handiarekin» egin da. Osasun txartel elektronikoa ezarri eta egun gutxira Bizkaiko herri horretako 15.000 biztanlek bazuten berea. Gainera, horietako gehienek kiroldegian sartzeko edo beren ogasun datuak begiratzeko zein errenta aitortpena aurkezteko erabili zuten.

Osasun txartel elektronikoko berriak sinadura elektronikoa eskaintzen du, eta hala, Internetetik hainbat eragiketa egin daitezke.